

XEDAPEN OROKORRAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

2445

AGINDUA, 2021eko martxoaren 16koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoan okintzarako gariaren ekoizpen integraturako arau tekniko espezifikoa.

Ekoizpen Integratuari buruzko otsailaren 13ko 31/2001 Dekretuaren 3. artikulua xedatzen duenez (EHAA, 219. zk., 2003ko azaroaren 10ekoa), Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailak (gaur egun, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila), titularraren aginduz eta Euskadiko Ekoizpen Integraturako Koordinazio Batzordeak proposatuta, arau tekniko bat onetsiko du nekazaritzako edo elikadurako produktu bakoitzerako, praktika hauek zehaztuko dituen: produktua ekoizpen integratukoa izan dadin nahitaez bete behar diren ekoizpen-, elaborazio- edo manipulazio-praktikak; kaltegarriak direlako debekatuta dauden praktikak, eta gomendagarritzat jo diren baina epe ertainera nahitaezkoak izango diren praktikak. Gainera, produktuaren trazabilitatea bermatzeko beharrezkotzat jotzen den informazio guztia zehaztuko dute arau teknikoek, eta, bereziki, landa-koadernoetan jaso beharrekoa eta koaderno horiek eramateko bete behar diren baldintzak.

Era berean, dekretu horren 9.3 artikuluko a) letrak eta Euskadiko Ekoizpen Integraturako Koordinazio Batzordearen osaera eta funtzionamendu-araubidea zehazten dituen Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren 2002ko otsailaren 5eko Aginduaren 1. artikulua (2002ko martxoaren 8ko EHAA, 48. zk.) batzorde horren eginkizunen artean jasotzen dute nekazaritza- edo elikagai-gintza-produktu bakoitzaren arau teknikoak proposatzea.

Euskadiko Ekoizpen Integratuaren Behin-behineko Koordinazio Batzordeak, 2020ko uztailaren 20an egindako bileran, erabaki zuen, besteak beste, otsailaren 13ko 31/2001 Dekretuaren 9.4 artikuluan ezarritakoaren arabera eratutako batzorde teknikoek proposatuta, okintzarako gariaren ekoizpen integraturako arau tekniko espezifikoa onartzea, eta Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuari helarazi zion.

Esandako guztia kontua hartuta, hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Okintzarako garia modu integratuan ekoizteko arau tekniko espezifikoa onartzea (agindu honen eranskina).

XEDAPEN GEHIGARRIA

Etiketari ekoizpen integratuaren sistemari buruzko aipamenak sartu nahi dituzten operadoreek dagokion eskabidea eta etiketa-eredua aurkeztu beharko dituzte, Ekoizpen Integratuari buruzko otsailaren 13ko 31/2001 Dekretuaren 8. artikuluaekin bat etorritik. Eredu hori etiketen arau orokorra eta aplikatu beharreko gainerako arauak betez onartuko da.

2021eko apirilaren 30a, ostirala

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko martxoaren 16a.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

ERANSKINA

OKINTZARAKO GARIAREN EKOIZPEN INTEGRATURAKO ARAU TEKNIKO ESPEZIFIKOA

Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan aplikagarria.

Arau tekniko espezifikoa honek Landare-jatorriko Produktuen Ekoizpen Integraturako Arau Tekniko Orokorra espezifikatzen, jarraitzen eta osatzen du, okintzarako gariaren laborantzari lotutako guztian.

Arau tekniko espezifikoa hau laborantza estentsiboen Batzorde Teknikoko ordezkariak berariaz sortutako lantalde batek egin du. Hazi fundazioak egin ditu lantalde horretako idazkaritza-lanak.

SARRERA

Arau tekniko espezifikoa honek Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan aplikatzeko den ekoizpen integratuko arau orokorra osatzen du, okintzarako gariaren laborantzari dagokion guztian.

Hemen jasotzen diren artikuluek Arau Tekniko Orokorrean jasotako zenbakiei jarraitzen diete, eta haien edukia osatzen edo ordeztzen dute kasuan kasu.

Arau honek ekoizpen- eta manipulazio-prozesuak bete behar dituen laborantza-baldintza espezifikoa ezartzen ditu.

Arau orokorrean bezala, prozesuaren fase bakoitzerako nahitaez bete beharreko baldintzak ezartzen dira, bai eta gomendioak ere. Fase bakoitzerako, arau orokorrean ezarritakoa beteko da, baita dokumentu honetan zehaztutakoa ere.

I. kapitulutik XIII.era deskribatutako baldintzak operadore-ekoizleari buruzkoak dira; XIV. kapituluaren operadore-manipulatuzailearen edo manipulazio-zentralaren baldintza espezifikoa deskribatzen dira, eta gainerako kapituluak bi operadore-mota horiei aplikatzekoak dira.

EKOIZPEN INTEGRATUAREN ESPARRU ARAUTZAILEA

31/2001 Dekretua, otsailaren 13koa, ekoizpen integratuari eta hura nekazaritzako elikagaietan adierazteari buruzkoa. Euskal Autonomia Erkidegoan ekoizpen integratua arautzen duen oinarriko lege-esparrua da.

ARAU-OINARRIA

Hauek dira erreferentziako dokumentuak:

– 2007ko irailaren 24ko Agindua, Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatu beharreko landare-jatorriko produktuarentako ekoizpen integratuari buruzkoa.

– Azaroaren 20ko 1201/2002 Errege Dekretua, nekazaritzako produktuen ekoizpen integratua arautzen duena.

TERMINOEN DEFINIZIOAK

Landare-jatorriko produktuen ekoizpen integraturako arau tekniko orokorrean, ekoizpen integratuaren araudian erabiltzen diren termino orokorrak definitzen dira.

Dokumentu honetan ez da erabiltzen atal honetan definitu beharreko beste laborantza-termino espezifikorik.

I. KAPITULUA

ALDEZ AURRETIKO BALDINTZAK

Arau orokorrean zehaztutakoa beteko da, eta, horretaz gainera:

1. artikulua.– Erregistroko baldintza-multzoa.

1.2.– Laborantza-unitateen definizioa.

Araudi hau betetzearen ondorioetarako, laborantza-unitatetzat hartuko da landutako azalera-unitatea, lursail batek edo gehiagok osatua, mugakideak izan edo ez, zeinean labore bera lantzen baita, ekoizpen-orientazio berarekin, antzeko laborantza-praktikei jarraituz, gutxi gora-behera aldi berean eta titular bakar batek kudeatua. Tratamendu fitosanitarioak egiten badira, materia aktibo berak erabiliko dira, une berean eta dosi beretan aplikatuta. Egiaztatutako teknika-riek erabakiko dute unitate bat noiz zatitu behar den, tratamendu lokalizatuak egin ahal izateko. Zatitutako labore-unitateetan, produktuaren trazabilitateari eutsiko zaio, zatiketa bakoitzerako. Kutsadura gurutzatua gertatzeko arriskua badago, tratamenduaren segurtasun-epea errespetatu beharko da eragindako azalera osoan.

1.3.– Laborea erregistratzea.

Ekoizpen integratuko arau hau garirako definitzen da, okintzako ekoizpen-orientazioarekin. Ekoizleak Ekoizpen Integratuaren Erregistroan inskribatu behar ditu ekoizpen-orientazio hori duten lurzatiak, urtarrilaren 31 baino lehen.

2. artikulua.– Txukuntasuna eta garbitasuna.

2.1.– Biltegien garbiketa.

Ekoizleak uzta bere biltegietan gordetzen badu.

a) Alea jaso baino behar besteko aurrerapenarekin prestatu behar dira instalazioak; besteak beste:

– garbiketa sakona;

– hezetasuna, itoginak, eta beste kondentsazio-puntuak berrikustea eta konpontzea;

– intsektuak, txoriak, karraskariak eta beste animalia batzuk instalazioetara sar daitezkeen leihoak eta beste zulo batzuk ixtea.

b) Aleak ez du kontakturik izan behar tratatutako haziarekin, ongarriarekin eta honda dezaketen beste material batzuekin.

II. KAPITULUA

INSTALAZIOAK, TRESNAK ETA LANGILEAK

4. artikulua.– Ureztatze-sistema.

4.2.– Ureztatze-teknika.

Garia ureztatzen bada, aspertsore bidez ureztatuko da.

6. artikulua.– Tratamendu fitosanitarioetarako ekipoak.

6.1.– Inskripzioa.

Tratamendu fitosanitarioetarako ekipoek Nekazaritzako Makineriaren Erregistro Ofizialean inskribatuta egon behar dute.

8. artikulua.– Ongarriak aplikatzeko ekipoak.

8.1.– Inskripzioa.

Ongarritze-ekipoek Nekazaritzako Makineriaren Erregistro Ofizialean inskribatuta egon behar dute.

9. artikulua.– Bilketarako ekipoak eta tresnak.

9.1.– Uzta biltzeko makina.

Uzta biltzeko makina garbitu behar da ekoizpen integratuko lurzatietako uzta biltzen hasi aurretik, edo bermatu behar da bertako garia ez dela nahasten beste gari batzuekin.

10. artikulua.– Landare-produktu eta edukiontzientzako garraiobideak.

10.1.– Atoiak.

Atoiak kanpaina hasi baino lehen garbitu eta egokitu behar dira, eta horren erregistroa gorde behar da.

Alea eramateko garraio-enpresa baten zerbitzuak kontratatzen badira, enpresak aurretiazko kargari buruzko informazioa eman beharko du, eta atoaia zamatu aurretik garbi dagoela egiaztatu da. Kutxa kargatu ondoren, olanaz estali behar da lehenbailehen.

Olanak usainik gabe, garbi eta lehor egon behar dira. Euria egiten badu ere, garraiobidean ezin da urik sartu kutxara. Haren formak eta taxuerak kutxa egoki garbitzeko modukoak izango dira. Ez dira onartzen zurezko zoru edo paretak dituzten garraio-moduak.

III. KAPITULUA

LURZORUA, LURRAREN PRESTAKETA ETA LUR-LANTZEA

Arau orokorrean zehaztutakoa beteko da, eta, horretaz gainera:

14. artikulua.– Aurreko laboreak eta txandaketa.

14.1.– Lurraren emankortasunari eustea eta hobetzea.

Lurzoruaren emankortasunari eutsi eta hobetu behar da. Materia organikoaren edukia % 1 baino txikiagoa denean, uzta bildu ondoren, laborearen hondar guztiak (lastoa eta uztondoa) lurrera eraman behar dira, eta teknikariak emandako jarraibideen arabera maneiatu.

Lehenengo inskripzioa egin eta lehenengo bi urteetan, eskakizun hori betetzat joko da baldin eta ekintzak labore-unitatearen azaleraren erdian, gutxienez, egiten badira.

14.2.– Laboreak txandakatzeko programa.

Lurzati bat Eln inskribatu aurreko lau urteetan, lurzati horretan zereala ez den labore bat landu beharko zen, gutxienez, labore nagusi gisa (txandakatze horretarako, artoa, lugorria eta estalkidun lugorria onartzen dira). Eskakizun hori bete duela agiri bidez egiaztatu beharko du nekazariak.

14.3.– Aurreko laboreak.

Aurreko laborea ezin izango da garia edo artoa izan.

IV. KAPITULUA

LANDARE-MATERIALA

Arau orokorrean adierazitako guztia beteko da, aplikagarria denean, eta, horretaz gainera:

18. artikulua.– Jatorria eta kalitatea.

18.1.– Baimendutako jatorria.

Hazi ziurtatua erosi behar da, gutxienez R2 kategoriakoa, salbu eta ustategian bertan ekoizitako hazia bada; kasu horretan, egokituta egon behar du.

Erosketa-frogagiria (faktura edo albarana) gutxienez lau urtez gorde behar da, eta bertan lotea, barietatea, hornitzailea, kategoria eta jasotako tratamenduak adierazi behar dira.

Debekatuta dago genetikoki eraldatutako organismoak (GEO) ereitea.

19. artikulua.– Tratamenduak.

19.4.– Haziak.

Hazia fusariumaren aurka tratatzea gomendatzen da.

V. KAPITULUA

EREITEA – LANDATZEA.

Arau orokorrean zehaztutakoa beteko da, eta, horretaz gainera:

21. artikulua.– Ereitea - Landatzea.

21.1.– Tokiko baldintzetara egokitzea.

Garia ereiteko dosia barietatera egokituko da (1000 aleren pisuaren arabera), ereiteko baldintzak eta data kontuan hartuta, eta agronomikoki justifikatu beharko dute egiaztatutako teknikariek.

Justifikazio hori dokumentatu egin behar da.

VI. KAPITULUA

POLINIZAZIOA

Ez da aplikagarria.

VII. KAPITULUA

ONGARRITZEA, FERTIRRIGAZIOA ETA MEDEAGARRIAK

Arau orokorrean zehaztutakoa beteko da, eta, horretaz gainera:

24. artikulua.– Ongarritzea eta fertirrigazioa.

24.1.– Ongarritze-programa.

Egiaztatutako teknikariak urteko ongarritze-programa bat idatzi behar du, analisisien emaitzak kontuan hartuta, eta halaber, laborearen erauzketez gain, nutrizio- eta hazkunde-egoera, lurzorua emankortasun-mota eta -maila, eta beste bide batzuetatik egindako ekarpenak (materia organikoa, aurreko laboreak...). Galerak murrizteari begira (lixibizioa, higadura eta abar), programak zehaztuko du zer garai diren egokienak ongarrizeko, ongarrizteak nola zatikatu behar diren eta nola aplikatu; gainera, produkzio-orientazioa hartuko du kontuan.

25. artikulua.– Ongarritze nitrogenoduna.

25.1.– Gehienezko muga onargarriak.

Nitratoz kutsatzeko arriskuan dauden eremuetan, ezarritako jarduketa-planari jarraituko zaio.

Nitratoz kutsatzeko arriskuan dauden eremuetatik kanpo, urteko gehieneko ekarpen nitrogenatua ezin da izan 240 kg N/ha baino handiagoa. Kalkulua egiteko, ongari organikoen kasuan, N erabilgarria batuko da (27.5 artikuluko 1 taularen arabera), ez N organiko guztia.

25.3.– Zatikapena.

Debekatuta dago ongari nitrogenatu minerala ematea ereitean; izan ere, nitrogenoa aplikatzen denetik landarea xurgatzen hasten den arte denbora luzea igarotzen denez, mantenugai hori galtzeko arrisku handia dago.

Nitrogeno-ekarpena zatitu egin behar da, askapen moteleko ongariak erabiltzen direnean izan ezik.

25.4.– Nitrogenoaren banaketa.

Kontuan izan behar da nitrogeno-behar handienak gari-izpia garatzean izaten dituela landareak.

Ongarritze-programak 210 ONU/ha-tik gorako ekarpen nitrogenatua adierazten duenean, ongarritze minerala hiru ekarpenetan zatitu behar da, eta azkenekoa gari-izpia garatzen amaitzen dutenetik aurrera egin behar da, xurgatzea ziurtatzeko (ureztatzea edo espero diren euriak).

25.5.– Diagnostiko-tresnak.

Ongarritze-programan nitrogeno-ekarpenak ezartzeko, diagnostikorako tresnaren bat erabiltzea gomendatzen da (N-min lurzoruan, NDVI diferentzia normalizatuko landarediaren indizea, klorofila-irakurgailuak, etab.).

27. artikulua.– Ongarri organikoak.

27.4.– Simaurrak eta mindak aplikatzea.

Debekatuta dago simaurrak eta mindak aplikatzea putzuak edo elurra dituzten lursailetan; era berean, debekatuta dago giza kontsumorako ur-hartune batetik 50 metro baino gutxiagora aplikatzea. Aplikatzeko modua (platera, haize-emailea, kanoia) legeriaren mugak kontuan hartuta izango da.

27.5.– Dosia.

Simaurra edo minda emanez gero, aurreko uztaren hondarren gainean emango da, lurra landu aurretixe, bakterioen deskonposizioa errazteko.

Aplikatutako N organikoaren guztizko kopuruak ezin du 250 kg N/ha gainditu.

Ongarri organikoetatik (simaurrak eta mindak) datorren nitrogenoaren kasuan laborantzarako eskuragarri dagoen nitrogenoa kalkulatzeko, haren aberastasuna eta laborantzarako eskuragarri dagoen nitrogenoa hartu behar dira kontuan, erabilitako ongarri organiko motaren arabera (1 taula). Aplikatu den simaurraren edo mindaren analisisa edukiz gero, bertan zehaztutako balioak nagusituko dira ongarritze-unitateak kalkulatzeko.

1 taula. Nitrogenoaren edukia eta erabilgarritasuna laborearentzat, ongarri organiko motaren arabera

Ongarri mota	Materia lehorra	Guztizko nitrogeno organikoaren edukia	Laborearentzat erabilgarri dagoen nitrogenoa
	%	N/t kg edo m ³	%
Behi-minda	10,5	3,8	25
Txerri-minda	4,0	3,6	30
Behi-simaurrea	24,0	5,7	20
Ardi-simaurrea	33,2	10,2	20
Zaldi-simaurrea	25,0	5,0	20
Oilo-zirina	40,0	19,0	30

Balio horien arabera, honela egingo da kalkulua:

Erabilgarri dagoen N (kg N/ha) = aplikatutako kantitatea (t edo m³/ha) x N organikoaren eduki guztizkoa (kg N/t edo m³) x erabilgarri dagoen N (%)/100.

Ongarritze organikotik datorren nitrogeno erabilgarri hori ongarri mineralek kalkulatuak egiteko emandako nitrogenoari gehituko zaio.

VIII. KAPITULUA

UREZTATZEA

Arau orokorrean adierazitako guztia beteko da, aplikatzekoa denean.

IX. KAPITULUA

PRAKTIKA KULTURALAK

Arau orokorrean zehaztutakoa beteko da, eta, horretaz gainera:

32. artikulua.– Laborea ez den landarediaren erabilera.

32.1.– Belar txarren kontrola.

Herbizida orokorrak erabili beharrenean, txandakatzek eta lan mekanikoak lehenetsiko dira, ego-kiera denean esku hartzeko.

Debekatuta dago lurzatian herbizida orokorrak erabiltzea erein aurreko hiru hilabeteetan, salbu eta justifikazio tekniko dokumentatua badago. Nekazariak eskakizun hori betetzen duela egiaztatu beharko du, baita hilabete horietan lurzatia pertsonalki kudeatu ez badu ere.

32.4.– Herbizida aukeratzea.

Egiaztatutako teknikariek karga-unitatea balioetsi, eta herbizida egokiena agindu behar dute, bertan dauden belarren eta lurraresen historialaren arabera.

X. KAPITULUA

LABORANTZAREN MANEIU FITOSANITARIOA

Arau orokorrean zehaztutakoa beteko da, eta, horretaz gainera:

34. artikulua.– Fauna osagarriaren maneiua.

34.1.– Balioespena eta babesia.

Laborantza-estrategiaren barruan, eta fauna osagarria babesteko, bereziki zainduko diren bi espezie aukeratuko dira, hauen artean:

Coccinela septempunctata, *Scymus* sp., *Adonia variegata*, *Orius majusculus*, *Aphidoletes*, *Chrysoperla carne*, *Aphidimyza*, *Aphidiidae*, *Gymnosoma* spp., *Meraporus*; *Episyrphus balteatus*, *Eupeodes corollae*, *Sphaerophoria scripta*.

35. artikulua.– Kontrol fitosanitarioko metodoak.

35.3.– Laginketa eta esku hartzeko atalaseak.

Izurrien kudeaketa integratuko (IKI) irizpideei jarraitu behar zaie. Ohiko izurri eta gaixotasunetarako, arau teknikoaren eranskineko atalaseak bete behar dira.

35.4.– Metodoak lehenestea.

Arau teknikoaren eranskineko prebentzio- edo kultura-neurriak bete behar dira.

35.8.– Fusariuma.

Biltegiratutako alean mikotoxinak agertzeko arriskua murrizteko, ekoizleak lurzati guztiak aztertu behar ditu, eta ikusi zenbat galburu zuri (fusariosi-zantzua) dagoen, zenbatu, eta kopurua idatziz jaso. Teknikariak arriskua balioetsiko du, eta altua edo oso altua dela uste badu, bereiz biltegiratuko da lurzati horretako uzta, edo haren zati bat.

XI. KAPITULUA

BILKETA ETA KONTSERBAZIOA

Arau orokorrean zehaztutakoa beteko da, eta, horretaz gainera:

38. artikulua.– Bilketa.

38.2.– Ontze-maila: Aleak ontze fisiologikoa iristen duenean eta hezetasun-maila % 14tik gorakoa ez denean jasoko da uzta.

40. artikulua.– Bilketa eta kontserbazioa.

40.1.– Ezpurutasunak.

Ezpurutasunak ahalik eta gutxien izango dira harrera egiteko unean (identifikazio bisuala).

40.2.– Biltegiratzeko tokia.

Ezin da aire zabalean biltegiratu.

40.3.– Kontserbazioa.

Txoriak, saguak, intsektuak, tenperatura-igoera edo biltegiratutako alearen kalitatea okertzea eragiten duten beste faktore batzuk detektatzeko, biltegiratutako aleak eta instalazioak zuzenean behatu behar dira, gutxienez hilean behin (biokontrolak). Behaketa dokumentatu egingo da.

40.4.– Kaltetutako alea.

Kalte-zantzurik detektatzen bada, alea ontziz aldatu behar da, eta, beharrezkoa bada, irin-ogitarako ezaugarriak galdu dituen zati hondatua kenduko da. Zantzuak eta mugimenduak dokumentatu behar dira.

40.5.– Mikotoxinak.

Produktua irin-fabrikara eraman aurretik, egiaztatu behar da, ezarritako plan baten arabera, loteek betetzen dutela zereal-aleetako mikotoxinei buruz indarrean dagoen legeria.

XII. KAPITULUA

HONDAKINAK KUDEATZEA

Arau orokorrean adierazitako guztia beteko da, aplikatzekoa denean.

XIII. KAPITULUA

USTIAPEN-KOADERNOA

Arau orokorrean zehaztutakoa beteko da, eta, horretaz gainera:

45. artikulua.– Ustiapen-koadernoak.

45.1.– Koadernoak edukitzea.

Ustiapen-koadernoak nahitaezkoak da, eta eskuragarri egongo da beti auditoretzak egiteko.

45.7.– Oharrak.

Laborantza-unitateak: aurreko lau urteetako labore eta landare-estalkien identifikazioa eta azalera, eta aurreko urteko hondakinen kudeaketa.

Garia erein aurreko laborantza-sistema erregistratzea.

Garbiketa: biltegia eta atoiak.

Landare-materiala: laborantza-unitatea, barietatea, kategoria, lotea, tratamenduak, jatorria, datak (ereitea, biltzea), dentsitatea.

Praktika kulturalak: laborantza-unitatea, datak, egindako lanak eta deskribapena (lanabesa, sakonera, etab.), garia erein aurreko lur-lantzea barne.

Ongarritzea: laborantza-unitatea, data, ongarri-mota (osaera), dosia, egoera fenologikoa, operadorearen izena eta sinadura.

Fitosanitarioen preskripzio teknikoa: laborantza-unitatea, data, oharrak, preskripzioa, produktu komertziala edo materia aktiboa, dosia, segurtasun-epea, teknikariaren sinadura.

Belar, izurri eta gaixotasunen kontrol kimikoa: laborantza-unitatea, erein aurreko hiru hilabeteetan erabilitako herbizidak, tratamenduen justifikazioa (esku hartzeko irizpidea, tratamendu-atalaseak, monitorizazioa, etab.), data, izurria edo gaixotasuna, produktu komertziala, materia aktiboa, segurtasun-epea, dosia, preskripzio teknikoa, aplikatzailearen izena eta sinadura. Fusariumaren presentzia ebaluatzea.

Biodibertsitatea: hautatutako borondatezko praktikak eta horiek betetzeari buruzko oharrak.

Bilketa: laborantza-unitatea, bilketa-data, kantitatea, hezetasuna, destinoa.

Garraioa eta biltegitratzea: instalazioaren kokagunea, garraiobideak eta biltegiak garbitzea, biltegitratutako alea berrikustea.

Trazabilitatea: ereitetik ustiatetik atera arteko erregistroak.

Operadorearen adierazpena: data, izena eta sinadura.

XIV. KAPITULUA

ERALDAKETA-ZENTROA

Arau orokorrean adierazitako guztia beteko da aplikagarria denean, eta, gainera:

46. artikulua.– Instalazioak.

46.1.– Instalazioak - Definizioa.

Eraldaketa-zentroa beste operadore bat denez, beraz, inskripzio bat egingo da kategoria horretan Ekoizpen Integratuaren Erregistroan.

Gariarentzat, eraldaketa-zentroa da alea gordetzen den biltegia, biltegiaren titularra eta ekoizlea enpresa desberdinak direnean; halaber, manipulazio-zentroa izan daiteke garia eraldatzen den instalazioa, zentroaren titularra edonor dela ere.

46.12.– Eraldaketagunea.

a) Alea jaso baino behar besteko aurrerapenarekin prestatu behar dira instalazioak, besteak beste:

– garbiketa sakona;

– hezetasuna, itoginak, eta beste kondentsazio-puntuak berrikustea eta konpontzea;

– intsektuak, txoriak, karraskariak eta beste animalia batzuk instalazioetara sar daitezkeen leihoak eta beste zulo batzuk ixtea.

b) Aleak ez du kontakturik izan behar tratatutako haziarekin, ongariarekin eta honda dezaketen beste material batzuekin.

46.14.– Biltegiratzeko tokia.

Ezin da aire zabalean biltegiratu.

50. artikulua.– Lan-prozesuak

50.3.– Produktuaren kontserbazioa.

Txoriak, saguak, intsektuak, tenperatura-igoera edo biltegiratutako alearen kalitatea okertzea eragiten duten beste faktore batzuk detektatzeko, biltegiratutako aleak eta instalazioak zuzenean behatu behar dira, gutxienez hilean behin (biokontrolak). Behaketa dokumentatu egingo da.

50.4.– Kaltetutako alea.

Kalte-zantzurik detektatzen bada, alea ontziz aldatu behar da, eta, beharrezkoa bada, irin-ogitarako ezaugarriak galdu dituen zati hondatua kenduko da. Zantzuak eta mugimenduak dokumentatu behar dira.

50.5.– Mikotoxinak.

Produktua irin-fabrikara eraman aurretik, egiaztatu behar da, ezarritako plan baten arabera, loteek betetzen dutela zereal-aleetako mikotoxinei buruz indarrean dagoen legeria.

XV. KAPITULUA

PRODUKTU FITOSANITARIOEN HONDAKINEN KONTROLA

Arau orokorrean adierazitako guztia beteko da, aplikatzekoa denean.

XVI. KAPITULUA

INGURUMEN-BABESA

Arau orokorrean adierazitako guztia beteko da aplikagarria denean, eta, gainera:

55. artikulua.– Ingurumen-babesa.

55.1.– Kontserbazio-politika.

Muga, ezponda, lubeta, erreka-bazter, erreten, areka eta antzeko elementuetako landaredi naturala errespetatzea. Landaredi naturala bertan egon dadin sustatzea.

55.5.– Ur-lasterrak babestea.

Debekatuta dago tratamenduen soberakinak isurtzea. Soberakinak sortzen badira, diluitu egin behar dira, laboreari aplikatu aurretik gaindosifikaziorik eragozteko, edo, bestela, beste modu egoki batean kudeatu (azken kasu horretan, dokumentu bidez jasoko da).

Gomendatzen da upelen hondoak eta irakuzketa-urak kentzea iragazketa- edo lurruntze-sistema egokituetatik, ura eta lurzorua ez kutsatzeko.

Ongarri organikoak modu egokian biltegitatu behar dira, ingurumena kutsatzeko arriskua murrizteko moduan, eta horren berri ustiapen-koadernoan idatzi behar da.

55.8.– Biodibertsitatea.

Dibertsitate biologikoa, genetikoa eta ekosistemarena aktiboki sustatu nahi da. Nekazaritza-ustiategiaren ingurune natural eta orekatu bat lortzeko, landareen eta animalien ekosistema dibertsifikatu batekin, ekoizle bakoitzak gutxienez bi aukera ekologiko egin behar ditu bere finken biodibertsitatea hobetzen laguntzeko, eta aukera horiek, lehenetsuz, biodibertsitatea sustatzeko neurrien zerrendatik hautatu behar ditu.

Kanpaina bakoitzaren hasieran, ekoizleak bere koadernoan idatzi behar du zer neurriekin konprometitzen den, eta betekizunen alderdi guztiak betetzen direlako ebidentziak aurkeztu behar ditu. Urtez urte, neurri ezberdinak aukeratu ditzake.

Ustiategi bat gariaren Ekoizpen Integratuan lehen aldiz inskribatzen denean, urtebeteko luzamendua izateko aukeraz baliatu ahal izango da biodibertsitatearen baldintza hori betetzeko.

Biodibertsitatea sustatzeko neurrien zerrenda:

a) Landare-estalkia (lekadunak edo kruziferoak, maiatzaren 1a baino lehen ereinak) duen lugorria sartzeari txandakatzean. Estalkiak, garatu den unean, konprometitutako azaleraren % 75 estali behar du gutxienez; loratu arte utziko da, eta gero lurzoruan sartuko da.

Kanpaina bakoitza EIn inskribatutako gariaren azaleraren % 20ko eremu gehigarri batean egingo da, aurreko hiru urteetako batean zerealarekin landutako lurzatietan.

b) Txandaketan, lurra hobetzeko labore bat sartzeari (lekadunak edo kruziferoak). Kanpaina bakoitza EIn inskribatutako gariaren azaleraren % 20ko eremu gehigarri batean egingo da, aurreko hiru urteetako batean zerealarekin landutako lurzatietan.

c) Intsektu polinizatzaileentzako eremu loretsu erakargarri eta elikagarri bat eskaintzea. Gari-laborearen ondoan edo ustiategiko beste lurzati batean egon daiteke. EIn inskribatutako gariaren azaleraren % 3ko eremu gehigarria okupatuko du.

Polinizatzaileen mesederako diren lau landare-familia erein behar dira, gutxienez. Baldintza horretarako irizpideak «lugorria landare ezti-emaileentzat» kategoriarako berberak dira (1075/2014 ED).

d) Inskribatutako lurzatietan eta haien inguruetan dauden hegazti-habiak aurkitzea.

Uzta biltzean, aukera ematea galsoroan egon daitezkeen hegaztiei ihes egiteko.

Lur-mugak, ildo-bizkarrak eta heskaiak hegaztiak babesteko eta elikatzeko tokiak dira. Ondo zaindu behar dira.

Metro bateko zabalerako ildo-bizkar edo heskaiak eraikitzea, EIn inskribatutako gari-hektarea bakoitzeko bi metro lineal urtean. Bibliografiaren arabera horretarako egokiak diren landareekin egin behar dira.

Babes-elementu berri horiek baliozkotzat jotzeko, aurreko hiru urteetako batean edo oraingoan garia (EIn edo ez) landu den lurzatietan jarri behar dira, edo horien aldameneko lurzatietan. Egitura horiek goldatzeko lur gisa sailkatuta ez dauden lursailetan eratu daitezke, betiere dagozkien baimenak badituzte.

Obra horiek errazteko, konpromiso hori lau urtetan metatzea onartzen da.

e) Kanpaina honetan golde belarriduna ez erabiltzea garirako inskribatutako lursailaren % 20an, lur-egitura onari eta agregatuen tamaina onari eusteko, higadura murrizteko, karbono organiko guztizkoari eusteko, mikrofaunaren alde egiteko eta mikrobio-populazio egokia atxikitzeke.

f) Lastoa (uzta biltzeko makinak txikituta) ahalik eta lasterren gehitu behar da lurrera, Elko garia ekoitzi den lurzatiaren azaleraren % 20an, uzta jaso eta areaz pasaera azkar bat eginda, lurzoruko fauna eta florari laguntzeko eta mantenu gaien galera murrizteko. Egiatutako teknikariek adieraziko dute nola egin behar den.

XVII. KAPITULUA

IDENTIFIKAZIOA ETA TRAZABILITATEA

Arau orokorrean adierazitako guztia beteko da, aplikatzekoa denean.

XVIII. KAPITULUA

PRESTAKUNTZA

Arau orokorrean adierazitako guztia beteko da, aplikatzekoa denean.

XIX. KAPITULUA

BEZEROEN ERREKLAMAZIOAK

Arau orokorrean adierazitako guztia beteko da, aplikatzekoa denean.

XX. KAPITULUA

KALITATE-SISTEMA

Arau orokorrean adierazitako guztia beteko da aplikagarria denean, eta, horretaz gainera

61. artikulua.– Kalitate-sistema.

61.5.– Dokumentazioa.

Operadoreak lau urtez gorde behar ditu barne-auditorien eta egindako kontrolen erregistroak.

61.6.– Laginak.

Gomendatzen da garraio-sorta edo -unitate bakoitzaren lagin adierazgarri bat hartzea eta leku seguruan gordetzea.

XXI. KAPITULUA

ANALISI-METODOAK

Arau orokorrean adierazitako guztia beteko da, aplikatzekoa denean.

2021eko apirilaren 30a, ostirala

ARAU TEKNIKOAREN ERANSKINA

Esku hartzeko irizpideak eta izurriak eta gaixotasunak kontrolatzeko neurriak okintzarako gariaren laborantzian.

OKINTZARAKO GARIAREN IZURRIEN ETA GAITZEN KONTROL INTEGRATUA

Izurri nagusiak	Laborantzarako arriskuaren jarraipena eta balioespina (*)	Prebentzio- eta/edo kultura-neurriak	Esku-hartzearen atalasea/unea
Zabroa (<i>Zabrus tenebrioides</i> Goeze)	Jarraipen bisuala, laborearen gaineko kalteen sintomatologian oinarritua, landarea jaiotzen denetik gari-izpia garatu arte, eta izurriak eragindako unadak identifikatzea.	Laboreak txandakatzea, eta labore kalteberak ez errepikatzen ahalegintzea, aurreko urteetan izurria detektatu denean. Uztaren ondoan berez ermetako garia bitarteko mekanikoen bidez kentzea uzatirik uzta. Laborantzarik gabeko erreiteak saihestea izurria atzeman den lurzatietan. Erreite goiztiarregiak saihestea.	Landarea jaiotzen denetik hiru hosto izan arte: - Ziklo luzeko garagarra: kaltea 10-15 landare/m ² -an. - Ziklo luzeko garia: kaltea 8-10 landare/m ² -an.
Zereal-kistearen nematodoa (<i>Heterodera avenae</i> Wollenweber)	Jarraipen bisuala, laborearen gaineko kalteen sintomatologian oinarritua, landarea jaiotzen denetik gari-izpia garatu arte, eta izurriak eragindako unadak identifikatzea.	Labore-txandakatzeak: zerealen monolaborantza saihestea. Txandakatzean, izurriaren populazio-dentsitatea murrizten duten laboreak sartzea, hala nola alpapa, erremolatxa, koltza, artoa edo basartoa. Sakonera txikiko erreiteak egitea, landare sendoagoak lortzeko. Larben eklosioarekin bat ez datozen egunetan erreitea. Negu hotzak dituzten lekuetan, udazkenean berandu erreitea saihestu behar da, baina negua hain zorrotza ez den lekuetan, hobe da atzeratzea.	Ez dago zehaztuta.
Galburu-zorria (<i>Sitobion avenae</i> F.)	Lurzatiaren laginketa bisuala, ertzean eta barnealdean, bereiz, zorririk dagoen balioesteko.	Uztaren ondoan berez ermetako gari eta gramineo kalteberak kentzea. Arrabol trinkotzailea pasatzeak, erin aurretik edo ondoren, izurriaren jarduera zailtzen du eta laboreari laguntza ematen dio.	
Zerealaren krisomelidoa (<i>Oulema melanopa</i> L.)	Hostoetan larben presentzia zenbatestea, lurzatia ertzetik eta barnealdetik bereiz korrituz.	Ongarri nitrogenatu orekatua. Aspertsio bidezko ureztatzea, galburuak garbitzeko. Zorrien etsai naturalak egon daitezkeen bultzatzea. Barietate goiztiarrek erreitea, zikloaren amaieran kaltea murrizteko. Uda hasieran lurra lantzea, populazioa murrizteko.	Ez dago zehaztuta.

2021eko apirilaren 30a, ostirala

Izurri nagusiak	Laborantzarako arriskuaren jarraipena eta balloespina (*)	Prebentzio- eta/edo kultura-neurriak	Esku-hartzearen atalasea/unea
<p>Zereal-zimitzak: «garrapatillo» edo «pauilla» (<i>Ae/a rostrata Fabricius</i>); «sampedrito» edo «pauillon» (<i>Eurygaster austriacus Schrk.</i>).</p>	<p>Begiz zaintzea lurzatiaren ertzak, labore aurreratuenak edo zekale-laboreak (horrelakorik badago).</p>	<p>Ereku endemikoetan, gariaren ordeaz garagarra jartzea. Barietate goiztiarrak edo goiz heltzen direnak ereitea. Beste gramineo espontaneo batzuk garbitzea.</p>	<p>2-14 heldu/m². 10-20 ninfa/m².</p>

2021eko apirilaren 30a, ostirala

Gaixotasun nagusiak	Laborantzarako arriskuaren jarraipena eta balioespina (*)	Prebentzio- eta/edo kultura-neurriak	Esku-hartzearen atalasea/unea
<p>Ikatz biluzia (<i>Ustilago</i> sp.)</p>	<p>Gaixotasunak ez du sendabiderik; zaintza hazia ekoizteko egin behar da.</p>	<p>Ziurtatutako haziak erabiltzea. Autokontsumorako hazia erabiliz gero, ez da infektatutako lurzatietatik datorren hazirik erabili behar. Lehen aipatutako erregelamendu teknikoan zehazten diren atalaseak erabiltzea. Ez erabili jatorri ezezaguneko alea ereiteko. Hazia kutsatuta egon daitekeela susmatuz gero, erein aurretik hazia desinfektatzea erabaki daiteke.</p>	<p>Oinari-aurreko eta oinarritzko kategoriak, 50 landare/ha. R-1 ziuertagiria, 500 landare/ha. R-2 ziuertagiria, 1.000 landare/ha.</p>
<p>Gariaren txantxarra edo ikatza (<i>Tilletia caries</i> (D.C.) Tul)</p>	<p>Lurzatiak zaintzea, batez ere gari-uzta biltzen den unean, ikatza dagoen ikusteko. Gaixotasunak ez du sendabiderik; zaintza gari-hazia ekoizteko egin behar da.</p>	<p>Ziurtatutako haziak erabiltzea. Ez erabili jatorri ezezaguneko alea ereiteko. Eragindako lurzatietan, ahalegintzea urtebetez gutxienez garia ez ereiten. Ondo zaintzea makinak eta erremintak garbitzeko neurriak, bai uzta-lanak egin bitartean, bai ondoren, alea garraitzeko lanetan, horixe baita gaixotasuna barriatzeko une kritikoa.</p>	<p>Oinari-aurreko eta oinarritzko kategoriak, 5 landare/ha. R-1 ziuertagiria eta R-2 ziuertagiria, 50 landare/ha-koa.</p>
<p>Gari-oinaren orban obala (<i>Oculimacula</i> sp.)</p>	<p>Lurzati bakoitzean 50 landare gutxienez hartzea eta gaixotasunaren presentzia ebaluatzea zurtioin oinarrian, gari-izpiaren hasierako fasean, laborearen bi begitaraino.</p>	<p>Labore-txandakatzeak. Ahal dela, zereal kalteberak ez ereitea eta belar gramineo txarrak kentzea. Ahal dela, neguko garia goiz ez ereitea. Kalteberak ez diren barietateak erabiltzea. Gehiegizko ongarritze nitrogenaturik ez egitea. Eragindako lurzatietan, hobe izango da azaleko lur-lantzea egitea, lastoa errazago deskonposatzeko.</p>	<p>Eragindako zurtioin % 40.</p>

2021eko apirilaren 30a, ostirala

Gaixotasun nagusiak	Laborantzarako arriskuaren jarraipena eta balioespina (*)	Prebentzio- eta/edo kultura-neurriak	Esku-hartzearen atalasea/unea
<p>Oin beltza (<i>Gaeumannomyces graminis</i> Walker)</p>	<p>Uzta bildu aurretik balioespen bisualak egitea. Laginketaren helburua da kaltetutako landareak zenbatatea (zurtoinak edo galburuak). Lehen landareen kolore-aldaketa gaixotasunaren adierazle izan daiteke. Gaixotasuna atzemateak hurrengo kanpainan prebentzio-neurriak programatzeko balioko du.</p>	<p>Laboreak txandakatzea, garagarra eta garia errepika daitezen saihestea. Gaixotasunaren zikloa hausten duten laboreak sartzea txandakatzean, hala nola basartoa, oloa, patata eta lugorria. Uztiatik uzitara belar kalteberak kentzea, baita berez erretako garia ere. Udazkenean goiz ereitea saihestu behar da. Ez erabiltzea ereite-dosi altuak. Labore-lanak egitea, lurzorua aireztatu eta drainatu dadin eta trinkotu ez dadin.</p>	<p>Ez dago zehaztuta.</p>
<p><i>Rhizoctonia (Rhizoctonia sp.)</i></p>	<p>Ontzearen hasieratik laginketa egitea, kaltetutako landareak (zurtoinak edo galburuak) zenbateteko. Gaixotasuna atzemateak hurrengo kanpainan prebentzio-neurriak programatzeko balioko du.</p>	<p>Labore-txandakatze luzeak, espezie kalteberak errepikatu gabe (neguko zerealak jotzen dira kalteberatza, basabelarrak barne). Lur-lanketa sakonak, hobeto iraulketa bidez, esklerozioak suntsitzeko. Ereite goiztiarrik ez egitea.</p>	<p>Ez dago zehaztuta.</p>
<p>Garagarren <i>Helminthosporiosis reticular-a (Pyrenophora teres Drechsler)</i></p>	<p>Ibilbide bat egingo da lurzati osoan zehar, diagonalean edo sigi-sagan. Gaixotasunaren presentzia kontrolatzea, zurtoin nagusiaren eta zabaldutako haren azken hiru hostoen gainean, 100 zurtoin nagusitan gutxienez, bi begiren eta loreen artean.</p>	<p>Labore-txandakatzeak, garagarra errepikatu gabe. Uzta ondoan berez ernatutako garagarra kentzea, uztiatik uzitara. Labore-hondarrak lurperatzea, gaixotasuna izan duten lurzatietan. Ez egitea ereite goiztiarrik. Nitrogeno askorik gabeko ongarritzea.</p>	
<p>Zerealen zurina (<i>Blumeria (Erysiphe) graminis</i> DC.)</p>	<p>Ibilbide bat egingo da lurzati osoan zehar, diagonalean edo sigi-sagan. Gaixotasunaren presentzia kontrolatzea zurtoin nagusian eta zabaldutako haren azken hiru hostoetan, gutxienez 100 zurtoin nagusitan bi begitatik loreetaraino.</p>	<p>Kalteberak ez diren baiteteak ereitea. Nitrogeno askorik gabeko ongarritzea. Nitrogenoa berandu ez ematea. Ez erabili hazi-dosi handiegirik.</p>	

2021eko apirilaren 30a, ostirala

Gaixotasun nagusiak	Laborantzarako arriskuaren jarraipena eta balioespina (*)	Prebentzio- eta/edo kultura-neurriak	Esku-hartzearen atalasea/unea
<p>Septoriois (Septoria tritici Desm. eta S. nodorum Berk.)</p>	<p>Ibilbide bat egingo da lurzati osoan zehar, diagonalean edo sigi-sagan.</p> <p>Gaixotasunaren presentzia kontrolatzea zurtin nagusian eta zabalduetako haren azken hiru hostoetan, gutxienez 100 zurtin nagusitan bi begititik loreetaraino.</p>	<p>Labore-hondarrak lurperatzea, gaixotasuna izan duten lurzatiengan.</p> <p>Berez ernetako garia kentzea uztaik uzatara.</p> <p>Ereite goiztiarrik ez egitea.</p> <p>Kalteberak ez diren barietateak ereitea.</p> <p>Tratatutako hazia erabiltzea, udaberrian kaltetutako lurzatietatik datorrenean.</p> <p>Nitrogeno askorik gabeko ongarriztea.</p>	<p>Bi begitatik ahotzera, landareen %20k zarakarrak dituzte garatutako azken hiru hostoetan.</p> <p>Burutzeko faseik loraldira bitartean, landareen % 50ek zarakarrak dituzte azken bi hostoetan edo galburuan.</p>
<p>Herdoil nabarra (Puccinia triticina Roberge, Puccinia recondita Eriksson)</p>	<p>Ibilbide bat egingo da lurzati osoan zehar, diagonalean edo sigi-sagan.</p> <p>Gaixotasunaren presentzia kontrolatzea zurtin nagusian eta zabalduetako azken hiru hostoetan, 100 zurtin nagusitan gutxienez, bi begitatik loreetara bitartean.</p>	<p>Berez ernetako garia kentzea uztaik uzatara.</p> <p>Ez egitea ereite goiztiarrik.</p> <p>Kalteberak ez diren barietateak ereitea.</p> <p>Nitrogeno askorik gabeko ongarriztea.</p>	<p>Lehen sintomak hautematea, baldintza eta aurreikuspen klimatikoak kontuan hartuta.</p>
<p>Herdoil horia (Puccinia striiformis Westendorp)</p>	<p>Ibilbide bat egingo da lurzati osoan zehar, diagonalean edo sigi-sagan.</p> <p>Gaixotasunaren presentzia kontrolatzea zurtin eta hosto aktibo guztietan, 100 zurtin nagusitan gutxienez, gari-izpia garatzen hasten denetik loraldira bitartean.</p>	<p>Berez ernetako garia kentzea uztaik uzatara.</p> <p>Kalteberak ez diren edo erresistentek diren barietateak ereitea.</p> <p>Ez egitea ereite goiztiarrik.</p> <p>Nitrogeno askorik gabeko ongarriztea.</p>	<p>Egun batzuetan, euriteak edo hezetan erlatibo handia izateko arrisku handia, laborearen loraldi betean.</p>
<p>Fusariosia (Fusarium graminearum Schwabe, F. roseum (Link) Snyder & Hansen eta Microdochium nivale (Fries) Samuels & I.C. Hallet)</p>	<p>Garatzeko faseik loraldira bitartean, eguraldiaren iragarpenak behatzea.</p>	<p>Labore-txandakatzeak. Labore kalteberak (artoa eta garia) errepikatzeak gaixotasuna garatzeko arriskua handitzen du.</p> <p>Laborearen hondarrak lurperatzea, inokulua murrizteko.</p> <p>Kalteberak ez diren barietateak ereitea.</p> <p>Ez erabiltzea hazi-dosi altuak.</p> <p>Tratatutako hazia erabiltzea, udaberrian kaltetutako lurzatietatik datorrenean.</p> <p>Loraldian aspertsioz ureztatzea saihestea.</p>	<p>Egun batzuetan, euriteak edo hezetan erlatibo handia izateko arrisku handia, laborearen loraldi betean.</p>